



Garazi Goia - @GaraziGoia

Idazlea

## «Coach»-ak behar ditugu

**T**he last dance» dokumentalean Michael Jordan saskibaloia jokalaria aski ezagunaren bizitza kontatzen da, bere kirol ibilbidean zentratuta bakarrik (agidanez, nahita hartutako erabakia, bere bizitza pertsonalean arreta gutxi jarritako hainbat kapitulurako arrasto beltzik ez uzteko). Besteak beste, garbi uzten da, Jordanen ibilbide arrakastatsua ezin dela banandu Phil Jackson entrenatzaileak izan zuen eraginetik. Hain zuzen ere, jokalaria hobereña izateaz gain, talde hobereñeko jokalaria izatera iristeko mentalitate aldaketa hori erakusten da, enpatia eta estrategia bikainez Jacksonek kudeatuta. Jordanen irabazteko obsesioa eta motibazioa muturrekoak dira, baina eskala txikiagoetan jarrera berdinen eragina paraleloa da.


Ingelesean *coach* esaten zaio entrenatzaileari. Eliteko atleta edo kirolari guztien ondoan dago *coach* bat. Enpresa testuinguruan metafora hori erabiltzen dugu *coach* exekutibo baten lana azaltzerako orduan. Kirolean maila altuetan dabilzan horientzat bezala, normalizatu beharko litzateke negozioen edo enpresen lidergoan dabilzan horiek ere behar dutela *coach* bat. Halaber, norberaren garapen eta esplorazio bide horretan lagunduko dion gida bat behar dute. Jordanek behar izan zuen bezala.

Argitu dezagun oinarritzko ezberdintasun bat, askotan nahasmena sortzen duena. *Coach*ek galderak eginez laguntzen diote bati erantzunak aurkitzen; mentoreek galderak erantzuten dituzte beren esperientzian oinarrituta. «Zer nahi duzu, jokalaria hobereñaren saria irabazi urtero edo talderik hobereñean jokatu?», galdera egin zion Jacksonek Jordani, eta iritsi nahi zuen leku hartarako bidean lagundu zion.

Duela 12 urte izan nuen lehenengo «coach» saioa. Hasieran sentitu nuen deserosotasun hura -beste baten ahotik nire barruan nituen hainbat galdera entzuteak sortua eta nire ibilbidearen kontrola nik hartzeak zuen garrantzia izan ziren hasierako ikaskuntzak. Eta, orduetik ia beti izan dut nire alboan *coach* bat; eta, ezinbestekoak izan dira hainbat erabaki hartzerako orduan, erronka bakoitza soluzio bihurtzearen indarrak ohartzeko, aukerak sortzearen garrantziaz jabetzeko, nire bertsio hobereña zein den ikasteko eta norbere-onarpena sustatzeko. Behin eta berriz erakutsi didate enpatia, potentziala maximizatzea, estrategia garbia edukitzea eta taldekideak nire ibilbidean eramatea ezinbesteko parametroak direla edozein lider edo kudeatzailearentzat. Estimatu berezia diot *coach* berezi bati, gizonezkoak gailentzen ziren egoera estigmatizatueta eman zidalako. Eta, aurrerago, *coach* exekutibo ikasketak egiteko bultzada emateagatik.

Nire inguruan jende askok dauka *coach* bat. Horren abantailak ikusi direlako: norberaren garapenean, enpresaren emaitzetan eta lantaldean sortzen diren dinamiketan. Beste leku batzuetara noanean, ordea, sarri entzuten ditut, «hemen ez dugu hori egiten» edo «ez daukagu dirurik» bezalako antzeko adierazpen ahulak. Aldi berean, beste hainbat bidaia, bazkari, formazio edo antzekoetan askoz diru gehiago gastatzen denean; eta hori ere noski zilegi da, baina horietan dirua gastatzea ez bada kuestionatzen, «berria» den horretan ez dela ko sinetsi nahi izango da.

Badira beste batzuk «orain ez dut *coach* behar, lanpetuegi nago» esaten didatenak. Hortxe dago, hain zuzen ere, errore handiena. Behin batek esan zidan horretara jotzen dut: *coach* bati ezetz esan behar badiozu, arrazoi bakarra dago, zure emaitzak eta eraginkortasuna dituzun gaitasunen maila gorenean daudela (eta, zure ingurukoek ere horrela baieztatzen dutela). Tamalez, hori ez da askotan gertatzen. •



«Coach»-ek zure bertsio hobereña ematen laguntzen dizute. GAUR8